

**HAUTAKETA PROZESUA: OHIKO PROZESUA. 2022KO URRIAREN 20KO UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREAREN EBAZPENAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA. (2022ko ABENDUAREN 22ko EHAA)**

**DEIALDI ESPEZIFIKOA: GESTIOKO TEKNIKARIEN ESKALA - EKONOMIA (Ohiko prozesua)**

**LEHIAKETA ETA EUSKARAREN FASEAREN BEHIN BETIKO EMAITZAK ARGITARATZEKO EPAIMAHANAREN ERABAKIA.**

Izangaiek garaiz eta behar bezala alegatu eta egiaztatutako euskarazko merezimenduen eta hizkuntza eskakizunen behin-behineko balorazioa argitaratu ondoren, erabaki honen eranskinean jasotako erreklamazioak jaso ziren, horretarako ezarritako epean.

8.2, 8.4 eta 8.5 oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera, aipatutako hautaketa prozesua arautzen duten oinarri espezifikoen laugarren, bosgarren eta seigarren puntuetan ezarritakoaren arabera, erreklamazio horiek aztertu ditu epaimahai kalifikatzaileak.

Ondorioz, hautaketa prozesu honetako izangaiek aurkeztutako erreklamazioak baremoen arabera aztertu eta ebatzi ondoren, merituen balorazioan antzemandako akats materialak ofizioz zuzenduta eta gero, epaimahaiak bilera egin du, oinarri orokorretako zazpigarren eta hamabigarren puntuetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta honako hau erabaki du:

**LEHENENGOA.** – Lehiaketa eta euskara fasearen Gestioko teknikarien (Ekonomia) eskalaren (Ohiko prozesua) deialdi espezifikoaren behin betiko balorazio-zerrendak argitaratzea, baita erreklamazioei erantzuna ere.

**BIGARRENA.** –Balorazio-zerrendak eta erreklamazioei erantzunak ikusgai egongo dira EHUko lan-eskaintzen atarian,( [https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite\\_g/euskera/generico\\_login.jsp](https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp)) hautagaiek kontsulta ditzaten.

Leioan,

Epaimahaiko idazkaria

Maria Arias López de Lacalle